

Fontes

Linguae Vasconum

50 urte. Ekarpen berriak

euskararen ikerketari

Nuevas aportaciones al

estudio de la lengua vasca

Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz

MIREN IBARLUZEA SANTISTEBAN

Argitaratzaileak / Editores

Ekaitz Santazilia

Dorota Krajewska

Eneko Zuloaga

Borja Ariztimuño



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz

Towards a unified historiography of Basque literary translation

MIREN IBARLUZEA SANTISTEBAN

MHLI ikerketa-taldea, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

miren.ibarluzea@ehu.eus

JASOA: 2019/06/30 | BEHIN-BEHINEAN ONARTUA: 2019/08/01 | BEHIN BETIKO ONARTUA: 2019/12/01

Lan hau MHLI (Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan) IT1047-16 ikerketa-taldearen US17/10 (UPV/EHU) eta FFI2017-84342-P (MINECO) ikerketa-proiektuen parte da.

LABURPENA

Mendiguren Bereziarturen (1995) *Euskal itzulpenaren historia laburra* literatura itzuliaren barne-eremua erakundetzen hasi eta eremuko produktu espezifikoaren pilatze sistematiko-selektiboari ekin zitzaioneko da (Ibarluzea, 2017). Euskal itzulpengintzaren eremua erakundetzen eta sendotzen joan da ordutik, baina ez da argitaratu bestelako historiografia berri eta osaturik. Hemen, halako historiografia bat, Euskal ikasketen esparruko ikerketak eta itzulpen-ikasketek emandako fruituak bilduko dituen, abiarazteko gogoeta egitea dugu xede. Bi helburu nagusi ditugu: a) euskal literatura itzuliaren historiarako literatur historiografiek eskaintzen dituzten datuen diagnosis egitea eta b) euskal literatura itzuliaren historiografia bateratu baterako gakoak proposatzea, itzulpenaren soziologiak eskaintzen dituen tresnak baliatuta.

Gako-hitzak: euskal itzulpengintza; euskal literatura; itzulpengintzaren historia; itzulpenaren soziologia.

ABSTRACT

Mendiguren Bereziartu (1995) published his *Brief history of Basque translation* when the subfield of Basque literature translation started to institutionalize and the systematic and selective accumulation of specific products arise (Ibarluzea, 2017). The field has changed since then, but there no historiography has updated and completed the aforementioned one. This paper aims to reflect on such a historiography. We would like to: a) diagnose data about translation extracted from Basque literary historiographies and b) propose key-points to launch a unified and global historiography of Basque literary translation making use of the tools of the sociology of translation.

Keywords: Basque translation; Basque literature; history of translation; sociology of translation.

1. Lanaren abiapuntua eta nondik norakoak

Xabier Mendiguren Bereziarturen (1995) *Euskal itzulpenaren historia laburra* historiografiak hamasei kapitulu ditu. Horietako zazpi eskaintzen zaizkio euskal literatura itzuliari (gainerakoetan itzulpengintzaren aro unibertsalen berri ematen da). Lan hori argitaratu zenetik, euskal itzulpengintzaren eremua erakundetu eta sendotu egin da, euskal itzulpen-ikasketa unibertsitarioak ezarri dira, euskal itzulpengintza ikergai dituzten hainbat azterketa egin dira itzulpen-ikasketak oinarri hartuta... Ez da, ordea, ikerketa horien emaitzak eta itzulpen-ikasketetan bizi izandako teorien bilakabidearen eta paradigma-aldaketen garapena islatzen dituen lanik egin 1995ekoa berritzeko eta osatzeko. Euskal literatura itzuliari lotuta, erronka horri aurre egiteko zenbait jakingarri aurkeztuko ditugu hemen.

Lan honetan diagnosi gisara gogoeta egingo dugu literatura itzuliaren historiako literatur historiografiek eskaintzen dituzten datuen inguruan, eta horretarako Ibarluzea (2017) tesi-laneko ondorioetatik abiatuko gara. Diagnosiari loturik, etorkizuneko erronkatzat jotako euskal literatura itzuliaren historiografia bateratua osatzeko zenbait gako proposatuko ditugu, itzulpenaren soziologiaren argitan; izan ere, arlo horrek bide ematen du teoria sistemikoek barne hartzen ez dituzten balio eta egoerak kontuan hartzeko eta erlazionatzeko, bai eta euskal itzulpengintzaren espezifikotasunak kontzeptualizatzeko ere.

2. Itzulpenaren historiako zenbait oinarri

Pymek (1998) *Method in translation history* lanean definitu bezala ulertzen dugu itzulpenaren historia, hots, ikasketa humanistikoen parte gisa. Bat gatoz, hortaz, itzultzaileez dioenarekin: itzultzaileak gizarte-eragileak dira (Pym, 1998, 4. or.). Halaber, gure egiten dugu itzulpenaren historiaz dioena: itzulpenaren historia nazioarteko harremanen ikerketa soziologikorako eta politikorako iturri da, hizkuntza-plangintzen garapena azaltzeko gakoak azal ditzake, jakintzaren nazioartekotzea ulertzeko tresna da, eta abar (Pym, 1998, viii. or.).

Ildo horretan, onar liteke askotariko funtzioak bete dituela itzulpenak, eta esan daiteke, esaterako, literatur lanen legitimazio-bidea dela (Sapiro, 2014, 96. or.). Itzulitako obrak eragin egiten du jatorrizko testuan, eta zenbaitetan haren funtzioa ere aldatzen du. Itzulpena, hortaz, ez da esanahiaren transmisio hutsa, ez eta esanahiaren bitartekaritza hutsa ere (Rubio Tobar, 2013, 122-123. or.), itzulpenaren bidez jatorrizko testuak era-

kusten ez dizkigun zenbait alderdi azaleraz daitezke, edota isilarazi (Rubio Tobar, 2013, 122-123. or.). Rubio Tobarrek (2013, 265. or.) itzulpenaren hainbat funtzio aipatzen ditu: bitartekaritzaren funtzioa, hots, kanpoko testuetarako sarbidea ematea, hizkuntzak aberastea, literatur generoak inportatzea, literatur interpretazio berriak egitea, idazleen lantegi izatea, jakintza zabaltzea edota oposizio politikoa egitea (Rubio Tobar, 2013, 268. or.). Itzultzea bera egintza politikoa denez gero, batetik, nazioa eraikitzen lagun dezake, eta, horretarako, hartzaileek onartu egin behar dituzte itzulpenak hizkuntza, identitate eta kultura nazionala eraikitzeko tresna gisa. Bi bidetatik lortzen da onarpena: a) jatorrizko testu jakinak erabilia eta b) itzulpen horiei buruzko diskurtso-estrategia jakinak erabilia (Venuti, 2013, 119. or.). Bestalde, oso kontuan hartzekoa da kulturarteko harremanak asimetrikoak direla, hierarkien arabera, eta menderatutako egoeran dauden hizkuntza eta kulturetako, eta hizkuntza eta kultura menderatzaileetako itzulpen-fluxuak eta helburuak ez direla parekoak izaten (Venuti, 2013, 194. or.).

Gémar bezalako ikertzaileek azaltzen dutenez, itzulpenak zibilizazioen sorkuntzan eragin izan du, hots, funtsezkoa izan da gizateriaren bilakabidean. Itzulpenari esleitu izan zaion funtzio nagusia funtzio komunikatiboa izan da, informaziorako eta jakintzarako tresnatzat jo izan da. Baina, hiru planotan lagundu dio itzulpenak gizateriaren garapenari: ideien zirkulazioen planoan, gizartearen antolamenduan eta ekonomian (Gémar, 1990, 247. or.). Besteak beste, Gémarrek itzulpenari egozten dizkio, kulturak aberasteaz gainera, hizkuntzen garapena, hizkuntza jakinen gailentasuna orekatzea, jatorrizko testuak askatzea, testuak eraldatzea, irakurleen gustua hezteko edo aldatzea... (Gémar, 1990, 24., 249., 255. or.). Bassnettek, bestalde, itzulpena literatur ariketa estetikoaren zerbitzura, erlijio-helburuen zerbitzura, helburu politikoen zerbitzura, moralaren zein zientzia-edukien zabalkundearen zerbitzura... egon daitekeela dio, eta itzulpenaren funtzio estetikoaren, erlijiosoa eta didaktikoa, hizkuntza aberastea eta hizkuntzen estatusa goratzea ere aipatzen ditu (Bassnett, 2002, 48-59. or.).

Itzultzaileek izandako rol eta funtzioen arabera atalkatu zuten Delislek eta Worthwoodek (1995) *Translators through history* lana, eta itzultzaileek gizateriaren pentsamenduaren garapenean izandako eraginean jarri zuten arreta. Itzultzaileen funtzioen artean hauek nabarmentzen dituzte: idazketaren eta alfabetoen garapenean eragitea, hizkuntza aberastea, literatura nazionalak agerraraztea, kultur balioak, jakintza, boterea eta erlijioa zabaltzea, bestea badela aitortzea, ikuspegi-aldaketak sorraraztea zein hiztegien eta hizkuntza-tresnen sorkuntzan eragitea (hiztegi elebakarrak, eleaniztunak, glosarioak, terminologia-bankuak..., ezen lexikografo gisa egindako lana ere onartu behar zaie itzultzaileei, Delisleren eta Worthwooden ustez). Horieta guztietan ez eze, historiaren eraikuntzan ere gako izan direla nabarmentzen dute, gertakari historiko garrantzitsuetan zuzenean parte hartu izan dutelako.

Itzulpenen funtzioei buruzkoak laburbiltzeko, argigarri da Sapiroren (2014, 94. or.) itzulpenaren funtzioen sailkapena, hiru multzo nagusitan sailka daitezkeela baitio, itzulpena jarduera soziala den aldetik: ideologikoa, ekonomikoa eta kulturala. Funtzio ideologikoei dagokienez, itzulpenak lor dezake, adibidez, doktrina jakin bat edo munduaren ikuspegi jakin bat zabaltzea, erregimen autoritarioei men egitea edo hark ezarritako oztupo politikoei aurre egitea (itzulpenen zirkulazio-zirkuituak askotarikoak izan

daitezke, baimenduak edo baimengabeak) eta abar (Sapiro, 2014, 94-95. or.). Bestalde, itzulpena liburuaren merkatuaren parte da, eta funtzio ekonomikoa ere badu. Editoreen motibazio bakarra ez bada ere, etekin ekonomikoaren garrantzia hor dago, eta zenbait itzulpen ahalik eta etekin handienak ateratzeko bideratzen dira. Gainera, mundializazioak areagotu egin du harreman editorialen zio ekonomikoa (Sapiro, 2014, 95. or.). Azkenik, funtzio kulturala dago: itzulpenek eragina dute obren legitimazio-prozesuetan; kanpotik ekarritako obrak subertsio-tresna izan daitezke, espazio nazionaletako arau literario menderatzaileen kontra; kapital sinbolikoa handitzeko modua dira; idazleentzat bestelako estiloak lantzeko ariketa; literatura nazional «txikientzat» nazioartera agertzeko tresna... (Sapiro, 2014, 95-96. or.).

Itzulpenaren historia egiteko, kontuan hartu beharko da zein funtzio bete izan dituen itzulpenak, betiere Pymen (1998) jarraibideei jarraituta. Izan ere, *Method in translation history* liburuan, oinarrizko lau printzipio proposatzen ditu itzulpenaren historiako ikertzailea gidatzeko. Lehenbiziko printzipioaren arabera (*attention to causation*), itzulpenaren historiak azaldu behar du zergatik ekoitzi diren itzulpenak garai eta leku jakin batean (Pym, 1998, ix. or.). Bigarren printzipioa (*focus on the human translation*) faktore humanoaren garrantziari lotzen zaio; egilearen iritziz, pertsonak dira gizarte-arazoen erantzule. Hortaz, itzultzaileak behar du izan giltzarria itzulpenaren historian. Bestela esanik, itzultzaileari berari eta haren testuinguruari (bezeroa, nagusia, irakurlea...) begiratu ezean, ezinezkoa da itzulpen jakinak ekoitzi izana egokiro ulertzea (Pym, 1998, ix. or.). Hirugarren printzipioaren arabera (*hypothesis projecting intercultural belonging*), itzultzaileak behar du izan itzulpenaren historiaren erdigune, baina gizarte jakin bateko pieza dela ulertuz eta gizarte horretako ezaugarriari erreparatuz. Hala, itzultzaileen lanak gizarte-testuinguru jakinetan izandako funtzioan jarri behar da arreta (Pym, 1998, x. or.). Laugarren printzipioaren arabera (*a priority of the present*), historia gaur egunetik egiten da, eta «the past is an object that must be made to respond to our questions, indicating categories and potential solutions that we have not previously thought of» (Pym, 1998, x. or.).

Aipagai dugun liburuan Pymek (1998, 5. or.) itzulpenaren historiaren azpi-alorrak bereizten ditu: arkeologia, kritika historikoa eta azalpena. Itzulpenaren arkeologia (*translation archaeology*) galdera hauei osoki edo zatika erantzuten dien diskurtso-multzoa da: nork, zer, nola, non, noiz, norentzat eta zertarako itzuli zuen? Hala, itzulpenen katalogoak eta itzultzaileen ikerketa biografikoak alor horretan kokatzekoak dira (Pym, 1998, 5. or.). Kritika historikoari (*historical criticism*) dagokionez, diskurtso-multzo bat da, itzulpenek garapena laguntzen edo oztopatzen duten moduari buruzko diskurtsoen bilkura. Arestian esan bezala, diskurtso-bilketa orainetik ikertzen dugula gogoratu behar da: «[r]ather than decide whether a translation is progressive for us here and now, properly historical criticism must determine the value of a past translator's work in relation to the effects achieved in the past» (Pym, 1998, 5. or.). Azalpena (*explanation*), ostera, artefaktu historikoak zergatik gertatu ziren azaltzen duen historiaren arloa da; halaber, itzulpenak aldaketari edo garapenari nola lotzen zaizkion azaltzen du. Nolabait, arkeologiak eta kritika historikoak egintzekin eta testuekin dute zerikusia, eta, azalpenak, berriz, horiek arrazoitzearekin. Azken hori botere-harremanekin dago lotuta, eta ildo

horretan ikus liteke zer neurritan diren itzulzaileak eragile sozialak. Itzulzaile bakar bat ikertzetik haratago, azalpenak taldeari buruzkoak izan daitezke. Horrez gainera, bestelako azalpen-maila batzuetan jorra daitezke teknologiak gizarte-taldeen harremanetan eta sareetan eragindako aldaketak (Pym, 1998, 6. or.). Horiek horrela, Pymen ustez *zergatik?* da itzulpenaren historiako ikertzaileak bere buruari egin diezaiokeen galderarik garrantzitsuena. Zernahi ere den, itzulpenaren historiak hiru alorrak behar ditu, eta alorrak ez dira inola ere beregainak: bata bestearen beharra du eta alor guztietako ikertzaileen ikerketen baturak eta behaketa orokorrak emango digute itzulpenaren historiaren ikuspegi zabala (Pym, 1996, 6-8. or.).

Woodsworthek dioenez, itzulpenaren historia egiteko askotariko narrazio historikoak behar dira. Narrazio historikoak itzulpenaren praktikari buruz aritu daitezke, edo itzulpenaren teoriak (Nola itzuli behar da? Zer-nolakoa da itzulpen egokia?), edo biez. Bada, praktikaren historiak aztertzen du nork zer itzuli zuen, eta zer baldintzatan; itzulpenaren teoriaren edo diskurtsoaren historiak, ordea, itzulzaileek euren jardueraz esandakoak aztertzea du xede nagusi, bai eta itzulpenak ebaluatzeko baliatu izan diren irizpideen narrazio historikoa egitea ere (Woodsworth, 1998, 101. or.). Izan ere, garaian-garaian eta hizkuntza-komunitatearen arabera, modu batera edo bestera balioetsi izan da itzulpena. Garai bakoitzeko eta gizarte bakoitzeko itzulpen-eraginak ikertzeko, hainbat iturri har daitezke kontuan; besteak beste, itzulzaileen gutuneria, itzulpenen kritikak, hizkuntzak irakasteko metodoak, itzulpenari buruzko tratatuak... (D'Hulst, 1995, 17. or.). Bada, literatur historiografiak ere iturri onak izan daitezke, eta Ibarluzea (2017) lanean egindako euskal literaturaren historiografien azterketak erakusten duenez, euskal literatur itzuliaren historiako datuak erauz daitezke azterketa horretatik.

3. Euskal literatura itzuliaren historiografia bateratu baterako diagnosia eta erronkak, euskal literatur historiografien analisitik abiatuta

Ibarluzea (2017) lanean aletutako historiografiak arakatzearen helburua izan zen ikustea ea txertatzen ote ziren itzulpenei buruzko oharak, zein neurritan, zertarako, eta bilakabiderik ikusten ote zen itzulpenen errepresentazioei zegokionez euskal literaturaren garapenari buruzko narrazioan (ikusi aztertutako historiografiak erreferentzien atalean). Gure ustez, azterketa horretatik ateratako zenbait ondorio argigarriak izan litezke euskal literatur itzuliaren historiografia bateratuaren arrastoan egin beharreko lanerako, eta horiek komentatuko ditugu jarraian.

Itzulpenen inguruko aipamen kopuruari eta nolakotasunari helduz gero, esan dezakegu euskal literaturari buruzko historiografietan itzulpena agertu egiten dela, nahiz eta Rubio Tobar (2013, 243. or.) bezalako ikertzaileek dioten tarte txikiak eskaini izan zaizkiola oro har itzulpenari literatur historiografietan. Itzulpenaren errepresentazioa, itzulpenari eskaintzen zaion tartea eta diskurtsoaren nolakotasuna lantzen den literatur aroaren eta historiografia egiten duen egilearen ikuspegi metodologikoaren arabera

da. Ildo horretan, askotariko funtzioak agerrarazi izan dira euskal literatur historiografietan euskal itzulpenei dagokienez. Edonola ere, ezingo genituzke datuok dauden-daudenean baliatu euskal literatur itzulpenaren historiografia bateratu baterako ikuspegi metodologiko berarekin berrikusi eta berrirakurri gabe.

Arestian aipatutako azterketaren argitan, azpimarratzekoa da itzulpenei buruzko aipamenak murriztu egiten direla historiografia-egileak XX. mendetik aurrerako literaturaz ari direnean, eta, gainera, ohar orokorrak izaten direla, itzulpenak multzotan iruzkintzen dituztenak. XX. mendea baino lehenagoko itzulpenei buruzko oharra, ostera, zehatzagoak dira, testu zehatzei buruzkoak eta, gehienetan, ohar linguistikoak. Historiografien bilakabideari begiratuz gero, berritze metodologikoa (ik. Casenave, 2012) gertatu aurreko historiografietan datu arkeologiko hutsak edo datu arkeologikoen zerrendatzeak jasotzen dira batez ere. Itzulpenaren historiari buruzko azalpenak eta kritika gehiago jasotzen da berritze metodologikoaz geroztiko literatur historiografietan (1980ko hamarkadatik aurrerakoetan), baina itzulpen-ikasketen ikuspegitik sakontasun handirik gabe egiten dira; gainera, Casenavek (2012) zehaztu bezala, aro garaikidean jartzen dute arreta, eta XX. mendea baino lehenagoko testuei buruzko iruzkinak ez dira ia aldatu historiografien bilakabidean. Horiek horrela, euskal literatura itzuliaren historiografia bateratu baten argitan, XX. mendea baino lehenagoko testu itzulietan ageri diren joera orokorrak identifikatzeko eta azaltzeko ahalegina egin beharko litzateke, eta XX. mendeaz geroztiko lan zenbaiten itzulpen-azterketa xehatuen berri eman ere, ikus-teko hizkuntza-joerak nolakoak diren eta errepikatzen ote diren. Interesgarri deritzogu eremuko eragileen bidezko azterketari, itzulpenak literatur eremuaren barruan duten sareak eta eraginak azaleratu ahal izateko. Bestela esanik, garai bakoitzeko ohar-motak bateratu beharko genituzke eta itzulpen-ikasketa soziologikoei jarraikiz, itzultzaileen joerak, itzultzaile-autoreen loturak, testuen arteko loturak, hizkuntza-hautuei buruzko jarreraren nondik norakoak... deskribatzea eta sareak identifikatzea, eta eremuaren bilakaera gisa horretan agerraraztea izango litzateke historiografia bateratu eta orokor baten xede nagusietako bat.

Erronkatzat jotako balizko historiografia bateratu eta osatuan, kontuan hartu beharko da itzulpenaren beraren definizioa aldatuz joan dela denborarekin, zehaztu beharko da garaian-garaian zer-nola definitu izan den itzulpena, azaldu beharko da zer-nola kokatu izan diren itzulpenak gainerako testuen aldean, hots, besteen parekotzat jotzen ziren, bereizi egiten ziren jatorriz euskaraz sortutakoak eta itzulpenak, egokitzaпенak jatorrizkotzat jotzen diren...

Garai batzuetako testuei bestelako garaietako ikuspegiz begiratzeak ekarri du, behar-bada, hainbat historiografia-egilek auzitan jartzea itzulpenen literaturtasuna edo balio literarioa. Sarasolak (1979), adibidez, itzulpenak historiografian txertatzeari buruzko zalantza esplizitua egiten du, nahiz eta justifikatu egiten duen txertatu izana: itzulpenek ez dute balio literarioa, baina bere historiografian txertatu egiten ditu, gure literatur sistemaren ezaugarriak direla eta; Sarasolak (1979) dioenez, ez da hala egiten bestelako literaturetan. Bestelako jokabide bat azaltzarren, Orpustanek (1996) itzulpenak txertatu izana justifikatzeko bi arrazoi ditu: itzulpenak garai jakin bateko adierazle izatea eta idazmolde edo dialekto zehatz baten adierazle izatea.

Neurri batean edo bestean, balio eta eragin literario askotarikoak esleitu izan dizkiote itzulpenari euskal historiografia-egileek, eta horren araberrako tratamendua eskaini diote. Kasurako, López Gasenik (2002) eta Olaziregik (2012) itzulpena literatur sistemako azpi-sistema bat dela-eta, aparteko atala eskaintzen diote itzulpenari euren historiografietan. Oro har, itzulpenaren errepresentazioei dagokienez, batetik, literatur historiografiek historia literario izatetik literatur historia izatera egindako bidean (Toledo, 2010) itzulpen- eta sormen-lanak ez banatetik itzulpenaren eta sormenaren eremuak bereiztera jo dute historiografia-egileek; are gehiago, literatur itzulpena euskal literaturaren barruan genero bat balitz bezala lantzen da aztertu ditugun azken historiografietako bitan (López Gasenirenean eta Olaziregirenean). Bestalde, periferiako generoak zenbat eta gehiago kontuan hartu, orduan eta aipamen gehiago egiten zaie itzulpenari.

Historiografien azterketan ikusi dugunez, «euskal» kultura eta literatura agerrarazi eta sustatu nahian baloratu izan dira askotan itzulpenak. Denboran atzeragoko historiografietan, eta denboran atzeragoko testuetan, oro har, itzulpena prozedura formaltzat jo eta iruzkindu izan da, hizkuntza batetik besterako hizkuntza-aldaketa balitz bezala. Denborak aurrera egin ahala, ikuspegia zertxobait aldatu eta hizkuntza zorrozteko tresna gisa agertzeaz gain, euskal literaturan lehenago jorratu gabeko hainbat literatur esparru jorratzen hasteko bidea izan dela ere nabarmendu da; horrela egin zuen Mitxelena (2011 [1960]), esaterako, itzulpen profanoen kopurua handitzen hasi zenekoa aipatu eta itzulpenaren funtzio literarioa agertzen hasi zenean. Gerora etorri da euskal historiografietan itzulpenaren beste funtzio batzuk agerraraztea, batez ere ikuspegi sistemikoen eta literatura konparatuaren bidetik. Zenbait historiografiatan zalantza jarri da sormenaren eta itzulpenaren arteko muga zein obra jakinen originaltasuna. Halaber, itzulpenaren balio literario askotarikoei buruzko aipamenak agertzen hasi dira (eraginak, erreperitorioak osatzea eta aberastea...). Hala, hasierako historiografietan batez ere itzulpenen balio fundazionala, pedagogikoa eta dialektologikoa nabarmentzen baziren ere, geroagoko historiografietan bestelako funtzioak ere hasi ziren agerrarazten: Olaziregik (2012) itzulpenen funtzio ekonomikoa eta sinbolikoa aipatzen ditu eta, Aldekoak (2008), bere aldetik, autore jakin batzuek egindako itzulpenen bitartez bistaratzen du autoreek egindako itzulpenek zer-nolako eragina duten autoreen pentsamolde, lan eta ideietan. López Gasenik (2010, 845. or.) gurean zenbait itzulpenek posizio zentrala bete dutela ikusarazteko saioa egiten du, hainbat garaitan itzulpenak erdiguneko posizioan agertu izana instituzioari zor zaiola dio (López Gaseni, 2010, 845-846. or.), testu erlijiosoen itzulpenak, sasi-itzulpenak eta literatura didaktikoaren kasuak azaltzen ditu, eta antzeko beste kasu batzuen azalpen sistemikoak emateko beharri buruzko deia egiten du: «erakusteko nola eta zergatik zenbaitetan ohikoak ez diren zenbait testu erdiguneko posizioak erdietsi dituzten, hizkera literarioak sortzen edo hobetzen lagundu duten, erreperitorio eta eredu berriak ekarri eta zaharkituta zeudenak berriro dituzten» (López Gaseni, 2010, 851-852. or.). Gure ustez, itzulpenaren soziologiaren ikuspegia baliatzeak (hots, itzulpenaren historiografia eremuko eragileen posizioei eta eremuko praktiken funtzioei erreparatuta egiteak) bideak zabaltzen ditu López Gasenik proposatzen dituen orokortzeak egiteko.

Esandakoak esanda, beraz, garrantzitsu deritzogu, literatura itzuliaren historiografia bateratu baterako, orain arte egindako lanen hausnarketa metodologikoa egiteari, ezen, orokorrean, itzulpenak norberaren gustu estetiko eta linguistikoen arabera ikustetik historiografiak eraikitzeko baliatutako metodologiaren eta teoriaren arabera diskurtsoak baliazera igaro dira historiografia-egileak (itzulpen-ikasketen bidetik, zehazki, teoria polisistemikoen arabera azterketa sustatu da batez ere). Ormaetxeak (2000 [1927]), kasurako, bere zaletasun linguistikoei buruzko ohar eta balorazioak egiten zituen; Mitxelenak (2011 [1960]), ostera, itzulpenaren prozedura linguistikoari begiratzen zion. Aipatzekoa da Mitxelenak egindako oharra baliatu izan dituztela aurrerantzean gainerrako historiagile askok XX. mendea baino lehenagoko testuak iruzkintzean. Aztertutako lehen historiografietan itzulpenaren funtzio linguistikoa soilik agertzetik bestelako funtzio batzuk azalarazteko joera nabari da historiografietan aurrera egin ahala. Batez ere funtzio kulturalak nabarmendu izan dira, baina ez horiek bakarrik; esate baterako, Olaziregiren (2012) azken historiografian itzulpenak literatur eremuan betetzen duen funtzio ekonomikoa eta sinbolikoa ere ikusarazten direla ikusi dugu. Ildo horretan, gure proposamena da literatur itzulpenari ikuspegi soziologikoz begiratzea.

Horiek horrela, euskal literatura itzuliaren historiografia bateratu baten argitan, garaian garaiko itzulpenaren definizioari, itzulpenari esleitutako balioari eta itzulpenak izandako funtzioari buruzko gogoeta esplizitua egin beharko litzateke, egindako itzulpenen eta itzultzaileen katalogoa, testuen ezaugarriak eta loturak, eta itzultzaileen sareak identifikatzeaz gainera. Nolabait, itzulpenak garaian garaiko kultur edo indar esparruen elkarreraginean izandako posizioari buruzko gogoeta egin beharko litzateke, bai eta garaian garaiko eragin literarioei buruzkoa ere. Gisa honetako galderen erantzunak ekartzea ere proposatzen dugu, beraz: nola eragin diete autoreei euskarara ekarritako lanek zein autoreek itzultitakoek? Zer-nola eragin diote autoreari bere lanak beste hizkuntza batean emateko prozesuek? Eragin horiek ohiturazkoak, lanari buruzko pertzepzioari buruzkoak, literarioak, linguistikoak... izan daitezke.

Gogoeta horrek bide ematen digu bidera ekartzeko zeinen garrantzitsua den itzulpenaren soziologiaren ikuspegitik itzulpena prozedura norabide-aniztun gisa ulertzea. Izan ere, D'Hulstek (2019, 66. or.) literatura belgikar itzuliaren historiari buruzko artikulua batean proposatzen duen modu berean, literatura hizkuntza-aniztunetan literatur historiek hizkuntza nazionaletan jarri izan dute arreta, baina itzulpenaren historiagileek ezin dute alde batera laga: ez nazio bereko hizkuntzen arteko itzulpena, ez eta itzulpen belgikarrek (hari dagokion kasuan) nazioarteko letren zirkulazioan hartzen duten lekua ere. Guri dagokigunez, beraz, berebizikoa da euskarara eta euskaratik egindako itzulpenak kontuan hartzea. Bada, euskal literatur historiografien azterketan ikusi dugunez, 1980ko hamarkadaz geroztik egindakoetan hasten dira aipamenak agertzen; Urkizurenean (2000) hasten da joera hori (historiografia beren-beregi kanpora begira idazten denean), baina batez ere Olaziregik integratzen ditu euskaratik beste hizkuntzetara egindako itzulpenen aipuak sistematikoki, bai Urkizuren (2000) historiografian, bai berak zuzendutakoan (Olaziregi, 2012). Ez hori bakarrik, beste literatur eremu batzuetan kritikak euskal literaturaz egindako aipuak ere badakartza Olaziregik (2012). Baina, euskaratik edo euskarara egindako itzulpenez gainera, oso kontuan hartzekoak dira itzulpen in-

tralinguistikoak, hots, hizkuntza beraren baitan dialekto batetik bestera egindakoak. Gure kasuan, gainera, euskal literatur itzuliaren aroren bat ezaugarritu dezaketela ere aurreratu dezakegu, kontuan hartuz gero dialektoen arteko itzulpen gehienak euskal testuen historian *Lehen Euskara Modernoa* (Lakarra, 1997) deritzon garaian egindakoak direla; izan ere, 1745-1875 tartean biltzen dira topatu ditugun itzulpen intralinguistiko gehienak (*cf.* Urgell, 2018).

4. Euskal literatura itzuliaren historiografia bateratu baterako gakoak, ondorio gisa

Euskal literatur historiografietan itzulpenak duen errepresentazioari eta haren bilakabideari begiratuta, argi dago beharizana dagoela itzulpen-ikasketa soziologikoaren ikuspegitik koherentea den historiografia idazteko euskal literaturaren eta euskal itzulpenaren eremuetan. Izan ere, euskal ikasketetan itzulpenari begiratzeko ikuspegiak itzulpen-ikasketetan izandako bilakabidea egin dute, baina oraindik euskal literatura itzuliari osotasunean begiratu dion ikerketa-programa finko bati jarraitzea eta ikerketa sistematikoak egitea falta da. Gure aldetik, itzulpenaren soziologiak ematen dizkigun tresnak baliatzeari egoki deritzogu ikerketa-programa horretarako, eta hala frogatu dugu, euskal literatura itzuliaren aro garaikidea deskribatzean (Ibarluzea, 2017).

Bada, lan horretan egindakoa beste garai batzuetara zabaldu eta ikuspegi bera erabiliz narrazio historikoa berritzea da proposamena. Noski, erronka kolektiboa da, garai bakoitza aztertzen duten ikertzaileen eta diziplinartekotasunak eskaintzen dituen onurak baliatuta egin beharrekoa, argi baitago itzulitako testuak aztertzeko eta lantzeko diziplina askotariko ikertzaileen beharra dugula. Euskal itzulpengintzaren historiari buruzko itaunak nekez erantzungo ditu itzulpen-ikasketetako arituak edo adituak berak bakarrik; baitezpadakoa izango du, esaterako, filologoen, historialarien, soziologoek eta literatur adituen lana. Iritzi berekoa da Ruiz Casanova, hizkuntza, historia eta literatura uztartu beharreko kontzeptuak direla dio: «Solo conocemos la historia de la traducción en una lengua si también conocemos la historia de dicha lengua y la de su literatura. De manera conjunta, indisoluble, como los tres vértices del triángulo [...]» (Ruiz Casanova, 2000, 524. or.).

Ibarluzea (2017) lanean azaldu bezala, beheko bi puntuok onartzen baldin baditugu:

1. Euskal literatura itzulia euskal literaturaren eta itzulpengintzaren eremuen baitako azpi-eremu bat da. Euskal literatura itzuliak osatzen duen barne-eremua gizarte-espazio egituratua eta egituratzailea da, erakundeek, eragileek eta praktikek osatutakoa. Halaber, (azpi-)eremua egituratuta dago, arau esplizitu eta inplizituak existitzen diren aldetik, eta eremuaren barneko eta kanpoko eragileen artean harreman logikoak sortzen diren aldetik (Vizcarra, 2002).
2. Euskal literatura itzuliaren azpi-eremua gizarte-espazio erlatiboki autonomia da, norabide anitzekoa eta transnazionala, non prozedura konplexuak gertatzen diren; hots, dinamikoa da, denboran zehar aldatu egiten denez gero; izan ere,

unean-unean elkarri eragiten dioten indar-sareek egituratzen dute barne-eremua, eta, aldi berean, barne-eremuko indarrek albo-eremuetan (itzulpen-eremua eta literatur eremua, esaterako) eragiten dute, beste albo-eremuetakoek euskal literatur itzulpenaren barne-eremuan eragiten duten bezala. Hortaz, esan daiteke euskal literatura itzuliaren barne-eremua erlatiboki autonomoa dela, hots, ez dagoela kanpo-indarretatik libre eta ez dela erabat beregaina, ez dela erabat espezifikoa ez eragileen ehundurari dagokionez, ez eta ehunduraren posizioari dagokionez ere.

Bada, orduan, garairik garai azaldu beharko dugu zein diren itzulpen-eremuaren egiturak, zer eragilek eta zer-nolako praktikek osatzen duten, zer-nolako autonomia duten, zer esparru geografikotan gertatu izan den, zer eraginen eta indarren mende egon den... Halaber, euskal itzulpenaren barne-eremua norabide anitzekoa dela esan dugunez gero, barne-eremuaren parte dira bai euskaratik egindako itzulpenak, bai euskarara egindakoak ere. Euskara da, nolabait, barne-eremua eta hura kokatzen den euskal itzulpenaren eremua ardatzen duen kapital sinbolikoa, eta norabide batean zein bestean egindako itzulpenek, bi-biek, eragiten dute bai euskal literatura itzuliaren barne-eremuan, bai eremu horrek elkarri eragiten dioten euskal literaturaren eremuan, bai literaturaren nazioarteko espazioan oro har. Halaber, itzulpen intralinguistikoen fluxua aztertzekoa da. Bide beretik, euskal literatura itzuliaren barne-eremua espazio transnazionala balitz bezala definitu dugunez gero (Heilbron & Sapiro, 2002, 3-5. or.), ulertu beharrekoa da espazio horretan esparru zehatz eta mugatu bateko politika zehatzek eragiten dutela batez ere, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako kultur eta hizkuntza-politikek, bertan baita euskara hizkuntza koofiziala; baina, ez dira horiek bakarrik, jakina: kontuan hartzekoak dira, halaber, beste espazio batzuetako eragile, erakunde eta sareak, hala nola Ipar Euskal Herrikoak eta Diasporakoak edota euskarari eta euskal kulturari buruzko interesa agertzen duten beste eremu batzuetakoak (kasurako, euskaratik egindako itzulpen bat jasotzen duen gizarte-egitura batekoak). Bada, hargatik deritzogu barne-eremu transnazional euskal literatura itzuliaren eremuari, muga nazionalak edo geografikoak ez direlako eremu baten mugak; izan ere, (barne-)eremuek ez dute muga zehatzik, eta unean uneko indarren proiektzioaren arabera izaten da (barne-)eremuaren irismena. Espazioaren ardatza loturik dago, ezinbestean, denboraren ardatzarekin. Espazioa aldatu egiten da denborak aurrera egin ahala, hargatik diogu eremua dinamikoa dela, ez soilik espazioan, baita denboran ere. Gisa horretan, aurretik emandako irudia etengabe aldatuko litzateke, eta aztertzen den garaia araberaren berregin, itzulpen-norabideak edo eremuen posizioa aldatu, etab. Adibidez, sasoi batean bat izan daitezke literatur eta itzulpen-eremuak, biak bat, baina beste sasoi batean ondo bereizirik ager daitezke. Halaber, sasoi batean itzulpen intralinguistikoak ager daitezke, eta beste batean kanpora egindako itzulpenak nagusitu.

Hala, itzulpen-aro bakoitza hizkuntza-konbinazio, itzulpen-norabide, itzulpen-eragile, eremu arteko elkarreragin, itzulpenaren funtzio eta abarren konbinazioak definituko luke. Beraz, garaian garaiko kultura-, politika- eta ekonomia-eremuen dinamikan deskribatu beharko litzateke itzulpena darabilen eremuaren egitura bera, eremuko egitura parte

hartzen duten eragileen *habitus*a eta kapitalak. Deskribatu beharko genuke itzulpenaren barne-eremua garaiz garai nork osatzen duen, bestelako zer eremurekin elkarreraginean gertatzen diren itzulpenak, nor diren eremu horietako eragileak, zer eraginen mende ari diren, zein diren garaian garaiko itzulpen-ohiturak, zergatik jokatzen duten eremuaren baitan, eta zer arrasto utzi duen horrek guztiak, itzulitako testuetan ez eze, gainerako literatur testuetan ere. Horretarako, metodologia berari jarraituta, proposatzen dugu Pymen (1998) hatsarreei eta azpi-alorrei men egitea eta guztietako datuak konbinatzea garaian garaiko testu itzulien funtzioen araberako narrazio bateratu eta orokorra egiteko. Izan ere, D’Hulstek (2019, 77. or.) dioen moduan, itzulpenaren historia egitea posible da, baldin eta nazioaren historiak onartzen baldin badu aztertzen den esparruko nazioarteko trukeek ere ezaugarritzen dutela aztergai den esparrua eta, era berean, onartzen badu badela nazio-barruko bestelako trukeerik ere nazio baten baitako kultura hizkuntza-aniztunetan. Halaber, Woodsworthi jarraikiz Talvistek eta Vrinat-Nicolovek (2019, 9. or.) jarraitzen duten historiografia-eredua aintzat hartuz, itzulpen-praktikaren baitan aztertzeoak dira nork, zer eta nola itzultzen duen (corpusak, lan- eta argitalpen-baldintzak, zentsura, prestakuntza, itzulpenak eta kanonak... dira kontuan hartzeoak), baita itzulpen-praktiken funtzio kulturalari buruzkoak ere: itzulpenaren eraginak hizkuntzan, hizkuntzaren eragina literaturaren garapenean, eta funtzio sozialei buruzkoak (itzulpenen garapen publikoa, itzulpenaren eragina beste esparru batzuetan...).

Erreferentziak

- Bassnett, S. (2002). *Translation studies (third edition)*. Londres-New York: Routledge.
- Casenave, J. (2012). *Euskal literaturaren historiaren historia*. Donostia: Utriusque Vasconicae.
- Delisle, J. & Woodsworth, J. (arg.). (1995). *Translators through history*. Amsterdam-Philadelphia: John Benjamins Publishing Company-Unesco Publishing.
- D’Hulst, L. (1995). Pour une historiographie des theories de la traduction : questions de méthode. *TTR: traduction, terminologie, rédaction*, 8(1), 13-33.
- D’Hulst, L. (2019). Le dilemme de Buridan : Une histoire de la traduction belge est-elle possible? *Chronotopos*, 1/19, 65-80. doi: 10.25365/cts-2019-1-1-5.
- Gémar, J. C. (1990). La traduction est-elle civilisatrice? Fonctions de la traduction et degrés de civilisation. *Meta*, 35(1), 247-257.
- Heilbron, J. & Sapiro, G. (2002). La traduction littéraire, un objet sociologique. *Actes de la recherche en sciences sociales*, 144, 3-5.
- Ibarluzea, M. (2017). *Itzulpengintzaren errepresentazioak euskal literatura garaikidean* (doktore-tesia). UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz. <https://addi.ehu.es/handle/10810/26629> helbidetik eskuratua.
- Lakarra, J. A. (1997). Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri. *ASJU*, 31(2), 447-536.

- Mendiguren Bereziartu, X. (1995). *Euskal itzulpenaren historia laburra*. Donostia: Elkar.
- Pym, A. (1998). *Method in translation history*. Manchester: St Jerome Publishing.
- Rubio Tobar, J. (2013). *Literatura, historia y traducción*. Madril: Ediciones de La Discreta.
- Ruiz Casanova, J. F. (2000). *Aproximación a una historia de la traducción en España*. Madril: Cátedra.
- Sapiro, G. (2014). *La sociologie de la littérature*. Paris: Editions La Decouverte.
- Talviste, K. & Vrinat-Nicolov, M. (2019). *Histoire de la traduction littéraire en Europe médiane*. Rennes: Presses Universitaires de Rennes.
- Toledo, A. M. (2010). Euskal literaturaren sistema: historia baterako aukera-irizpideak. *Euskera*, 55(2), 767-800.
- Urgell, B. (2018). Lehen Euskara Modernoa. In J. Gorrotxategi, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia* (543-657. or.). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- Venuti, L. (2013). *Translation changes everything*. Londres-New York: Routledge.
- Vizcarra, F. (2002). Premisas y conceptos básicos en la sociología de Pierre Bourdieu. *Estudios sobre las Culturas Contemporáneas*, 16(VIII), 55-68.
- Woodsworth, J. (1998). History of translation. In M. Baker (arg.), *Routledge encyclopedia of translation studies* (100-105. or.). Londres: Routledge.

Aztertutako historiografiak

- Aldekoa, I. (2008). *Euskal literaturaren historia*. Donostia: Erein.
- Juaristi, J. (1987). *Literatura vasca*. Madril: Taurus.
- López Gaseni, J. M. (2002). *Historia de la literatura vasca*. Madril: Acento.
- Mitxelena, L. (2011 [1960]). Historia de la literatura vasca. In J. A. Lakarra & I. Ruiz (arg.), *Luis Michelena. Obras completas. XIII. Historia de la literatura vasca. Literatura vasca del siglo XX* (81-205. or.). Donostia: UPV/EHU-GFA.
- Mujika, L. M. (1979). *Historia de la literatura euskerika*. Donostia: Luis Aramburu.
- Olaziregi, M. J. (arg.). (2012). *Basque literary history*. Reno: University of Nevada.
- Ormaetxea, N. (2000 [1927]). *Euskal Literatura' ren atze edo edesti laburra*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Orpustan, J. B. (1996). *Précis de littérature basque*. Baigorri: Izpegi.
- Sarasola, I. (1976). *Historia social de la literatura vasca*. Bartzelona: Akal.
- Urkiizu, P. (2000). *Historia de la literatura vasca*. Madril: UNED.
- Villasante, L. (1979). *Historia de la literatura vasca*. Oñati: Aranzazu.

Aurkibidea / Índice

- 11 Aitzinsolasa
- 13 Prólogo
- 15 Testu-corpusen informazio morfosintaktikoaren etiketatze automatikoa
hizkuntz ezagutzan oinarrituz: zenbait arazo, hainbat erronka
ITZIAR ADURIZ, JOSE MARI ARRIOLA
- 31 Bertsolaritzaren genealogia subalternoak
LUZIA ALBERRO, K. JOSU BIJUESCA
- 47 Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten
behinbehineko emaitzak
ESTIBALIZ AMORRORTU, ANE ORTEGA, JONE GOIRIGOLZARRI
- 63 Garaziko euskararen azterketa diafasikoa
ALEXANDER ARTZELUS MUXIKA
- 81 Berridazketak Sarrionandiaren poesian eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten
delako* nobelan: hurbilpen genetiko bat
MIKEL AYERBE SUDUPE
- 95 Somorrostro, mendebaldeko euskararen muga
GOIO BAÑALES, MIKEL GORROTXATEGI
- 113 Euskara sasoian? Euskararen sozializazioa Gasteizko
pilota-elkarte batean
IÑIGO BEITIA
- 127 Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa
GARBIÑE BEREZIARTUA ETXEBERRIA, BEÑAT MUGURUZA ASEGINOLAZA
- 141 Lingüística Histórica: estado actual
LYLE RICHARD CAMPBELL
- 163 Lenguas y sociolingüística en el interior del País Vasco en el siglo XIX:
testimonios del Archivo Zavala
BRUNO CAMUS BERGARECHE, SARA GÓMEZ SEIBANE

- 177 Les verbes psychologiques du basque : typologie et diachronie
DENIS CREISSELS, CÉLINE MOUNOLE
- 195 Testu-generoaren irudikapena eta erabilera ahozkoaren
didaktikan
LEIRE DIAZ DE GEREÑU LASAGA, ITZIAR IDIAZABAL GORROTXATEGI, LUIS MARI
LARRINGAN ARANZABAL
- 209 Zentsura-ikasketak gaur egun: aplikazioa euskal literaturan
AMAIA ELIZALDE ESTENAGA
- 223 Azentuazioaren eremu sintaktikoak mugatzen
ARANTZAZU ELORDIETA
- 237 Sintaktikoki etiketatutako euskarazko corpus historikoa
eraikitzen
AINARA ESTARRONA, IZASKUN ETXEBERRIA, RICARDO ETXEPARE, MANUEL
PADILLA-MOYANO, ANDER SORALUZE
- 253 Ahozkotasunaren didaktika ikuspegi dialektikotik abiatuta
AINHOA EZEIZA, JAVIER ENCINA
- 267 Ahozko euskararen erabilera eskolan: gako zenbait irakasleen prestakuntzarako
INES M. GARCIA-AZKOAGA, OLATZ BENGOETXEA, JOSUNE ZABALA
- 283 El corónimo navarro *Salazar / Zaraitzu*: origen y desarrollo de su doble
denominación
ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE
- 295 *Fontes Linguae Vasconum*: orígenes y documentos para una Historia
del Euskara
JOAQUÍN GORROCHATAGUI
- 315 Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz
MIREN IBARLUZEA SANTISTEBAN
- 329 Basque among the world's languages: a typological approach
IVÁN IGARTUA
- 351 Familias vascohablantes: propuesta de definición desde la socialización
lingüística
PAULA KASARES
- 363 Formation linguistique de basque aux enseignants, pour un enseignement
bilingue à parité horaire au Pays Basque Nord
BEÑAT LASCANO
- 375 Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren ekarpena euskal poetika erruralari
ITZIAR MADINA
- 391 Erdaretarako literatur itzulpena: zeharkako eta zuzeneko itzulpenaren arteko
muga lausoa
ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA

- 405 Ahozko euskararen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza:
berrikuntza didaktikoa eta soziala?
IBON MANTEROLA
- 421 Enkarterriko PI-(h)aran/(h)uri motako euskal toponimoak
MIKEL MARTÍNEZ ARETA
- 437 Diachronical hypotheses accounting for synchronic variation:
the case of the Basque particle *ote*
SERGIO MONFORTE
- 453 Jardueraren azterketa irakasleak prestatzeko bide: debatearen
ikas-irakaskuntzaren adibidea
AROA MURCIANO EIZAGUIRRE, ARANTZA OZAETA ELORTZA
- 467 Hausnarketa zenbait euskal literatura-ikerketez
MARI JOSE OLAZIREGI
- 485 Ahozko euskara *Kolegioko ikastresna* ikasmaterialean
ARGIA OLÇOMENDY
- 501 Euskararen postposizioak
JAVIER ORMAZABAL
- 517 Hitz-ordenaren eragina zenbait ezaugarri gramatikalen
erabilera-maiztasunean
LUIS PASTOR
- 533 Differential D-marking on proper names? A cross-linguistic study
IKER SALABERRI
- 547 Externalization and morphosyntactic parameters in Basque
HISAO TOKIZAKI
- 561 XIX. mendeko Debagoieneko testuez zenbait argitasun:
egiletasuna eta iturriak
OXEL URIBE-ETXEBARRIA
- 579 Euskarazko perpausik gabeko azpikonparazioak
LAURA VELA-PLO
- 595 Latinaren aurreko osagai indoeuroparra Euskal Herriko toponimian:
bukaeran -(iz)amo duten leku-izenak
LUIS MARI ZALDUA

Izenburua/Título:

Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari/Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca

© Argitaratzaileak/Editores:

Ekaitz Santazilia, Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño

© Egileak/Autores:

Itziar Aduriz, Jose Mari Arriola, Luzia Alberro, K. Josu Bijuesca, Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega, Jone Goirigolzarri, Alexander Artzelus Muxika, Mikel Ayerbe Sudupe, Goio Bañales, Mikel Gorrotxategi, Iñigo Beitia, Garbiñe Bereziartua Etxeberria, Beñat Muguruza Aseginolaza, Lyle Richard Campbell, Bruno Camus Bergareche, Sara Gómez Seibane, Denis Creissels, Céline Mounole, Leire Diaz de Gereñu Lasaga, Itziar Idiazabal Gorrotxategi, Luis Mari Larringan Aranzabal, Amaia Elizalde Estenaga, Arantzazu Elordieta, Ainara Estarrona, Izaskun Etxeberria, Ricardo Etxepare, Manuel Padilla-Moyano, Ander Soraluze, Ainhoa Ezeiza, Javier Encina, Ines M. Garcia-Azkoaga, Olatz Bengoetxea, Josune Zabala, Roberto González de Viñaspre, Joaquín Gorrochategui, Miren Ibarluzea Santisteban, Iván Igartua, Paula Kasares, Beñat Lascano, Itziar Madina, Elizabete Manterola Agirrezabalaga, Ibon Manterola, Mikel Martínez Areta, Sergio Monforte, Aroa Murciano Eizaguirre, Arantza Ozaeta Elortza, Mari Jose Olaziregi, Argia Olçomendy, Javier Ormazabal, Luis Pastor, Iker Salaberri, Hisao Tokizaki, Oxel Uribe-Etxebarria, Laura Vela-Plo, Luis Mari Zaldua

© Argitaratzailea/Edita:

Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra

Kultura eta Kirol Departamentua/Departamento de Cultura y Deporte

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia/Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana

Lanak adituek berrikusi dituzte, itsu bikoitzeko sistemaren bidez/Los trabajos han sido revisados por pares doble ciego.

Diseinua eta maketazioa/Diseño y maquetación:

Kö estudio

Imprimaketa/Impresión:

Linegrafic

ISBN: 978-84-235-3561-3

LG/DL: NA 1438-2020

Sustapena eta banaketa/Promoción y distribución:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa/Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra

Navas de Tolosa, 21

31002 Iruña/Pamplona

Tel.: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

Fontes Linguae Vasconum 50 urte.

2019an 50 urte egin zituen Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundeak argitaratzen duen *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta* euskal hizkuntzalaritzako aldizkariak.

Horren gorazarre, liburu honek gaur egungo euskal hizkuntzalaritza- eta literatura-ikerketan zertan den erakutsi nahi du. Eskarmentu handiko ikertzaileek eta belaunaldi berriek bat egin dute argitalpen honetan, besteak beste, dialektologia, hizkuntzaren didaktika, filologia, gramatika teorikoa, hizkuntz tipologia, hizkuntzalaritza historikoa, itzulpengintza, literatura, onomastika eta soziolinguistika hizpide dituztela.

La revista de lingüística vasca *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta*, publicada por la Institución Príncipe de Viana del Gobierno de Navarra, cumplió 50 años en 2019.

En homenaje de la efemérides, este libro pretende dar cuenta del estado actual de la investigación en lingüística y literatura vascas. Investigadores de gran trayectoria y nuevas generaciones se reúnen en esta publicación para tratar, entre otros temas, sobre dialectología, didáctica de la lengua, filología, gramática teórica, tipología lingüística, lingüística histórica, traducción, literatura, onomástica y sociolingüística.

ISBN: 978-84-235-3561-3



9 788423 535613